ALHAO

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2024ko uztailaren 26a, ostirala • 84 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

# ERRIBERABEITIKO UDALA

**Behin-behineko onespena ematea Erriberabeitiko zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari**

Udalak, udalbatzak 2024ko uztailaren 8an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen behin-behineko onespena ematea Erriberabeitiko zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasa arautzen duen zerga ordenantza aldatzeari.

Bat etorriz Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuaren 19.1 artikuluan xedatutakoarekin (2021eko urriaren 6ko ALHAO), espedientea jendaurrean egongo da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako ohar eta iradokizunak aurkeztu ahal izango dituzte.

Espedientearen aurkako erreklamaziorik aurkezten ez bada adierazitako epean, ordura arte behin-behinekoa izandako erabakia behin betiko onetsitzat joko da, bat etorriz Toki Ogasunak Arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onetsi zuen Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 29ko 1/2021 Araugintzako Foru Dekretuak 19.3 artikuluan xedatutakoarekin, beste erabakirik hartu beharrik gabe, eta aldatutako testua ALHAOn argitaratuko da.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Ribabellosa, 2024ko uztailaren 17a

*Alkatea*
*AMADO MARTÍNEZ DE ITURRATE CUARTANGO*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 267116
Fecha de firma: 2024.07.26 05:15:23 Z